



Save the Children

HAURREN MAILAN EGONGO DEN JUSTIZIA BATEN ALDE

Espainiako haurrenganako abusu sexualei
buruzko epaien azterketa.



v. 2025

savethechildren.es

Aurkibidea

3	1. Sarrera
5	2. Abusu sexualaren ezaugarriak
9	3. Zer gertatzen da abusu sexual bat salatzen denean?
15	4. Justizia espezializatua betebehar gisa
19	5. Gomendioak
24	6. Konklusioa

1. Sarrera

Indarkeriaren kontrako borrokan, gakoa prebentzioan datza. Baina berandu heltzen garenean, hau da, haur batek jada indarkeria jasan izan duenean, mugitu beharrean gara horiek babestuz, horien eskubideak ziurtatuz eta birbiktimizazioari aurrea hartuz. Babesteko premia hori indarkeria egoeretan erantzuna emateko prozesuan engaiatuta dauden erakunde guztietara luzatzen da, sistema judiziala barne. Horregatik, lehentasunezko kontu bat da justizia-sistema egokitzea indarkeriaren biktima izan diren haur eta nerabeentzat adeitsua izan dadin, horiek kontuan hartuz eta horien eskubide eta behar zehatzak errespetatuz, eta alderdi guztientzat garantista izango den sistema bat mantenduz. Horren helburua prozesuak biktima diren haurrek dagoeneko jasan izan dituzten ondorioak eta sufrimendua ez areagotzea izan behar du beti.

Haurrengana egokitutako justizia bat ezartzeko konpromisoa nazio mailako legerian jasota da Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa (HNIBBILO) onartu zenean. Lege horrek betebeharrak ezartzen zion Gobernuari, organo judizialak eta horien titularrak espezializatzea, hain zuzen ere, adingabeen kontra egindako delituen kausa penalen instrukzioarako eta epaiketarako, lege hori indarrean sartzen zenetik kontatzen hasi eta urtebeteko epean egindako lege-proiektu baten bidez. Beste lege-proiektu bat ere aurreikusten zuen, hots, Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Lege Organikoa aldatzeko, haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako fiskalak egon daitezkeen. Beste alde batetik, irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoak eta horren erreformak ere aurrerapen batzuk aurreikusten dituzte sistemaren erantzunari eta indarkeriaren (kasu honetan, sexuala) biktimenganako arretari dagokionez. Besteak beste, *Barnahus* ereduak onartzen du arreta integralerako eredu gisa.

Duela gutxi, berriz, Kongresuak Justizia Zerbitzu Publikoaren Antolamendu Eraginkortasunari buruzko Lege Organikoaren proiektua onartu zuen 2024ko abenduaren 19an, haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako sekzio judizialak sortzea ezartzen duena, beste neurri batzuen artean. Proiektu horren onarpena mugarri historiko bat da, eta haurrak eta nerabeak babesten espezializatutako sistema judizial bat sortzeko lehen urratsa da. Duela gutxi, 422/2025 Errege Dekretuarekin hasiera eman zaio aurreko legearen inplementazioari eta sekzio horiek eratzeari. Baina hori ez da nahikoa, oraindik ez dagoelako haurren eta nerabeen beharren mailan benetan egongo den justizia-sistemarik.

Sistemak haurrenganako abusu sexualari ematen dion erantzuna aztertzeko 2017an *Ojos que no quieren ver*¹ [Ikusi nahi ez duten begiak] izenburupean egindako gure lehen ikerketatik, Save the Children erakundearentzat lehentasuna da sistema judizialak

1 Save the Children (2017). *Ikusi nahi ez duten begiak*. Haurrenganako abusu sexualak Espainian eta sistemaren hutsak]

haurren eta nerabeen eskubideak nola bermatzen dituen aldizka aztertzea. Hala, 2021ean eta 2023an ere azterketa bana argitaratu genuen haurrenganako abusu sexualari buruzko epaien analisitik lortutako datu nagusiei buruzko azterlanarekin, prozesu judizialean gerta izan diren aldaketak ikusteko.²

HNIBBILO onartu zenetik lau urtera, datu horiek aztertu ditugu berriro 2023-2024 urteak erreferentziazat hartu eta aurreko urteetakoekin (batik bat, 2021-2022 aldiarekin) alderatzeko. Aurten, berriz, haurren kontra egindako abusu sexualen kasuen 345 epai judizial aztertu izan ditugu, hau da, 421 kasu (biktima).

Sararen historia

Sararen gurasoak banandu egin ziren hark 8 urte zituenean. Ordutik aurrera, bisita-araubide baten bidez izan zuen aitarekin harremana: asteburuak txandaka igarotzen zituen harekin, baita jaiegun batzuk ere, eta aitak alokatuta zeukan bizilekuan igarotzen zuen gaua. Gela bakarreko etxebizitza zen, eta Sarak aitaren ohe berean egiten zuen lo harekin geratzen zenean.

10 urte zituela Sarak aitarekin igaro zuen jaiegun batean, aita mozkortuta zen, eta alabari ukituak egin zizkion eta bortxatzen saiatu zen. Gertatutakoa inori ez kontatzeko esan zion hurrengo egunean. Abusuak errepikatu egin ziren urte horretan.

Abusuak hasi zirenetik bi urtera, Sarak eskolan kontatu zuen gertatu zitzaiona. Ordutik aurrera tratamendu psikologikoa jasotzen ari da, jasandako abusuaren arrasto larriengatik, bere burua lesionatzea eta suizidatzeko asmoak barne. Gaur egunean ere sintoma larriekin jarraitzen du: antsietatea, larridura, mesfidantza eta suizidiorako asmoak.

Auzibidea salaketa egin zenetik hilabetera hasi zen, baina epaiketa ez zen lau urte geroagora arte egin, bertan behera geratu eta atzeratu ondoren. Sararen aitari bidegabeko atzerapenen aringarria aplikatu zitzaion, eta bi urte eta sei hilabeteko kartzela-zigorra jaso zuen.

2 Ikus: Save the Children (2021), [*Espainiako haurrenganako abusu sexuali buruzko dossierra*](#); eta Save the Children (2023), [*Haurren mailan egongo den justizia baten alde*](#).

2. Abusu sexualaren ezaugarriak

2.1. Zer da abusu sexuala?

Heldu batek edo beste haur edo nerabe batek haur bati izaera sexualeko jarduera bat inposatzea da, bien artean den botere desberdintasunaz baliatuta, apeta sexual bat lortzeko. Espainiako araubideak 16 urtetan finkatzen du sexurako baimena, baina ez da inolaz ere aplikagarria adinean edo heldutasunean nagusiagoak diren pertsonetik harremanetan.³ Horren arrazoiaren artean, jokabide sexual bat ulertzeko edo horri alto emateko gaitasun eza dago.

Abusu sexualak hainbat jokabide eta ekintza sexual biltzen ditu, eta ondorio emozionalak, sexualak eta sozialak sortzen dizkie biktimei epe laburrera nahiz luzera. Zer abusu mota den, nork egiten duen eta inguruak horri ematen dion erantzunak zerikusi handia dute biktimaarengan dituen ondorioen maila zehazteko orduan.

Aipatu beharra dago Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren (SABIO) bidez egindako aldaketen ondoren, Kode Penalak baztertu egiten duela abusu sexualaren eta eraso sexualaren arteko aldea, eta juridikoki erasoak direla beste pertsonaren baimenik gabe sexu askatasuna urratzen duten jokabide guztiak. Era horretan, legeria berri horrekin Istanbulen Hitzarmena berretsita onartu ziren betebeharrak betetzen dira. 10/2022 Lege Organikoan ezartzen denari jarraituz Kode Penaleko 181. artikuluan delitutzat jotzen diren epaiak aztertzen dira.

“Abusua” hitza legeriatik kendu egin bada ere, hitz hori ezagunagoa da jendearen artean eta zabal eta luze erabiltzen jarraitzen da sektore profesionaletan, izan esparru psikosozialean, izan hezkuntzako zein osasuneko esparruetan. Berezko dinamika duen indarkeria mota bat esan nahi da hitz horrekin, botere-desberdintasuna eta manipulazioa direlarik indarkeria horren funtsezko ardatzak. Horrenbestez, hitz hori erabiltzen jarraitzen dugu txosten honen testuinguruan ere, aurreko ikerketekin koherentzia mantenduz.

3 Zigor Kodeak adostasun-adinetik salbuesteko klausula bat jasotzen du 183. bis artikuluan. Haren arabera, 16 urtetik beherakoek badute baimena emateko gaitasuna, horretarako heldutasun nahikoa dutenean eta beren adina eta garapen fisiko eta psikologikoaren maila harremanak dituzten pertsonaren parekoa denean. Salbuespen horri «Romeo eta Julieta» klausula esaten zaio.

2.2. Zergatik hartzen dugu abusu sexuala adibideko kasu gisara?

Abusu sexuala da haurren eta nerabeen kontrako indarkeria motarik larrienetakoa. Bost neskatik bat eta zazpi mutiletik bat indarkeria sexualaren biktima izan dela uste da.⁴ Hala eta guzti, ikusezintasun handienetarikoa indarkeria izaten jarraitzen du, halako kasurik ez dela ematen eta gure inguruko haur batek abusuak jasango balitu konturatuko ginenaren uste kolektiboak bultzatuta.

Arrazoi horrez gain, azterketaren xedea eta epaien analisia zedarritzeak, ikerketa bera eta metodologia errazteaz gain, haurrak biktima diren prozedura judizialean ageri diren hainbat ezaugarri eta alderdi xehetasun gehiagoz aztertzeko ere laguntzen du. Hori guztia, ondo bideratzen ez den prozedura batek dakarren bigarren mailako biktimizazioa bereziki larria den motako kasu batean.

2.3. Biktimaren profila

- **Biktima bakarra**

Aztertutako abusu sexualaren epaien %87,8an, biktima bakarra da. Portzentajea igo egin da 2021-2022 ekitaldiaren aldean (%68,6 zen orduan). Kasu batean 13 biktima egon diren arren, hiru biktima edo gehiago diren kasuak ez dira %4ra iristen.

- **Gehienak, neska eta mutiko nerabeak**

Aztertutako %82,9 kasutan, biktimak haurrak eta nerabeak ziren, eta erakusten du joera horrek gora jarraitzen duela, aurreko azterlanean erregistratu zen %80,3rekin alderatuta. Haurrak dira biktimak kasuen %17,1ean. Zifra hori lotuta egon daiteke abusuak jakinarazteko egon daitekeen erreparoarekin.

- **Biktimen %5ak desgaitasun bat du**


Kasuen %5ean biktimak desgaitasun bat duela aipatzen da (%1 gehiago aurreko ekitaldiarekin alderatuta), nahiz eta ez den zehazten mota.

- **12 urterekin**

Epaien analisiaren arabera, abusu sexualak, batez beste, 12 urte inguruan hasten dira. Aurreko azterketaren batez bestekoa baino handiagoa da, 11 urte baitziren. 2023-2024 aldian, abusuen %51,8 gertatu zen 10 eta 14 urte bitartean. Horrek esan nahi du kasuak apur bat igo egin direla tarte horretan 2021-2022ko aldiaren aldean, orduan kasuen %50,8 baitzen. Kasuen %22,6an, 10 urtetik beherakoak ziren.

4 Nazio Batuak (2024ko azaroaren 7a). **Munduak lehen aldiz aitortzen du haurren kontrako indarkeria krisi global bat dela.**

Adin tarteak kontuan hartuta ere genero-desberdintasunak ageri dira, hurrengo taulan azaltzen dugun moduan.



2.4. Erasotzailearen profila

- **Akusatuen %98a gizonetzkoak dira.**

Datu horrek agerian uzten du Espainian hurrenganako abusu sexualetan generoaren aldetik den joera nabarmena.

- **Senideak edo ezagunak.**

10 kasutatik 8tan, erasotzailea haurren ezaguna da, hein handiagoan edo gutxiagoan, gora doan arren erasotzaile ezezagunen portzentajea. Bi joerek bere horretan jarraitzen dute aztertutako azken urteotan.

Pertsona ezagunen taldeko eremurik ohikoenen artean, familia ingurua nabarmentzen da berriz ere, baina zifra hori jaisten ari da. Izan ere, gora doaz familia inguruneak ez diren erasotzaileak. Ezagunen eremuko profil horretan, barne hartzen dira familiaren edo biktimaren lagunak edo ezagunak, haurrekin lan egiten duten profesionalak, etab.

	2019-2020	2021-2022	2023-2024
Familiakoa	%49,5	%40,6	%41,8
Familiatik kanpoko ezaguna	%34,5	%42,3	%38,7
Ezezaguna	%16,0	%17,2	%19,5

Familia barruan, amaren bikotekidea (%11), aita (%8) eta beste senide batzuk (%8) nabarmentzen dira. Familiatik kanpoko ezagunen artean, berriz, %75,2a biktimaren ezagunak edo lagunak ziren.

Ikusten dugunez, biktimen batez besteko adina aldatu egiten da erasotzailearen profilaren arabera. Erasotzailea familia ingurukoa den kasuetan, 10 urte da batez besteko adina; erasotzailea ezaguna edo ezezagun bat denean, aldiz, batez bestekoa 13 urte inguruan dabil.

Eta 10 kasutatik 6tan (%63) erasotzaileak ez du aurrekaririk. Hala ere, igotzen ari da aurrekariak dituzten erasotzaileen portzentajea (%17,5). Aipatu beharra dago aurrekariak zituzten kasuen %16tan bakarrik zirela askatasun sexualaren kontrako delituengatik, hau da, %4 gehiago aurreko aldiaren aldean. Dena dela, datu horiek erakusten dute mota horretako delituak egiten dituztenak, oro har, nahiko zailak direla identifikatzen haurren balizko erasotzaile sexual gisa, bere aurrekarietan oinarrituta.

3. Zer gertatzen da abusu sexual bat salatzen denean?

3.1. Salaketen ia erdietan, biktima haur bat edo nerabe bat da

Estatuko Fiskaltzaren datuen arabera,⁵ 2023an haurren kontrako askatasun sexualarengatik delituengatik abiarazitako aurretiazko eginbideen 4tik 3 (guztizkoaren %74a) 16 urtetik beherako haur edo nerabeei egindako abusu edo eraso sexualei zegozkien.

Bestetik, Barne Ministerioaren datuen arabera, biktimak haurrak edo nerabeak ziren askatasun sexualaren kontrako delituengatik 9.185 salaketa aurkeztu ziren 2023an, eta biktima horien artean %79,8 neskak ziren. Biktima haurrak edo nerabeak dituzten salaketa horiek mota horretako delituen %42,6 dira. Kontuan izan behar dugu datu horien izebergaren tontorra besterik ez direla. Izan ere, uste da abusu sexualen %15a besterik ez dela salatzen.⁶

3.2. Prozesu judiziala

- **Nortzuk salatzen dute?**

Datuek adierazten dute amek salatzen dutela erregistratutako kasuen %38,8an, horiek direlarik salatzaile nagusiak, are biktimaren beraren gainetik, eta berretsi egiten da 2021-2022 aldiko joera. Aitek kasuen %6,9an salatzen dute, eta kasuen %5,6an aita-amek elkarrekin jartzen dute salaketa. Era berean, nabarmentzekoa da biktimek egindako salaketen portzentajearen igoera nabarmena: %37,6, aurreko aldiko %20,9ren aldean. Baliteke salatzeko kanalen irisgarritasuna hobetu egin delako gertatzea hori.

Hezkuntza zein osasun alorreko profesionalen aldetiko jakinarazpenak ere igo egin dira, %3,8 dira. Baliteke igoera horren arrazoia profesionalen artean dagoen prestakuntza hobeagoarengatik izatea; hala ere, portzentaje oso baxua izaten jarraitzen du, kontuan izanik hurrek eta nerabeek ikastetxetan igarotzen duten denbora mordoa.

⁵ Espainiako Fiskaltza Nagusiaren 2022. eta 2023. urteetako memoriak.

⁶ Save the Children (2017). *Ikusi nahi ez duten begiak*. Haurrenganako abusu sexualak Espainian eta sistemaren hutsak.

- **Iraupen luzea**

Datuek azaltzen dutenez, kasuen %52 inguru lehen hiru urtetan ebazten dira. Alabaina, prozesuen %40,9 esanguratsua hiru urte baino gehiago luzatzen da, eta %12,1ek 5 urte baino gehiago irauten du.

	2019-2020		2021-2022		2023-2024	
Urteak	Kasu kop.	%	Kasu kop.	%	Kasu kop.	%
1 - 2	276	%63,9	96	%20,1	106	%25,2
2 - 3	76	%17,6	116	%24,3	113	%26,8
3 - 4	32	%7,4	84	%17,6	76	%18,1
4 - 5	15	%3,5	78	%16,3	45	%10,7
5etik gora	11	%2,5	35	%7,3	51	%12,1
Ez da azaltzen	22	%5,1	69	%14,4	30	%7,1
Guztira	432	%100	478	%100	421	%100

Aurreko txostenarekin alderatuta, hobekuntza arin bat nabarmentzen da urtebetetik bi urtera bitartean irauten duten prozeduretan. Dena dela, oraindik portzentaje altua ematen da 3 urtetik gora irauten duten kasuetan, eta kezkarria da 5 urtetik gora irauten duten kasuen igoera.

- **Erdiek baino gehiagok behin baino gehiagotan deklaratu behar izan zuten. Epaiketa aurreko miaketa profesionalen aurrean**

Zaila bada ere kontatzea biktimak bere kasua zenbat bider azaldu behar izaten duen, kasuen %30ean ez delako ageri egintzak noren aurrean (polizia, fiskala, epaitegia, etab.) jakinarazi izan ziren, kasu askotan errealitatera hurbil gaitezke. Hala, ikusten dugu kasuen %41,1ean epaileak miatzen duela biktima, eta %36,5ean poliziak. Beraz, ikusten dugu epaileak protagonismoa hartzen doazela deklarazioa hartzean. Lehen, poliziak hartzen zuen kasuen %17an eta epaileak kasuen %13,8an.

Kasuen erdietan baino gehiagotan biktimek behin baino gehiagotan deklaratu behar izaten dutela erakusten jarraitzen dute datuek. Kasuen %20an, biktimak birritan deklaratu behar izan zuten, eta kasuen %3an, berriz, 5 bider edo, are, gehiagotan deklaratu behar izan zuten.

- **Frogabideak**

Askotan, biktimaren deklarazioa da haurrenganako abusu sexualaren frogabiderik handiena. Hori dela eta, funtsezkoa da deklarazio hori hartzeko eta hori epaiketan erabili ahal izateko baliabide egokiak eskura izatea.

Deklarazioaz gain, agiri bidezko frogak, peritu-frogak eta antzekoak sartzen dira haurrenganako abusu sexualaren kasuetako frogabide gisara. Biktimaren deklarazioa da (grabatua den ala ez alde batera utzita) frogabiderik errepikatuen, eta kontuan hartu ohi da epaia ematerakoan: aztertutako epaien %78an ageri da. Lekukoen deklarazioak jarraitzen dio (%62), eta ondoren peritu-froga psikologikoak (%59).

Biktimen deklarazioa ageri den epaien %11n, hori izan zen epaiketan kontuan hartu zen froga bakarra.

- **Biktimaren deklarazioaren balorazioa**

Auzitegiak oso kontuan hartu izan zuen deklarazioa kasuen %94an. Zifra oso positiboa da, eta biktima diren haurren deklarazioa frogabide gisara hartzeko balorazio egoki bat egiteko aurreko urteetatik nabari den joera sendotzen du. Alabaina, kasuen %6an ez zuen balio izan frogarako.

Haurren eskubidea auzibideetan entzunak izateko

Haurrek eragiten dieten auzibideetan entzunak izateko eskubidea dute. Halaxe aitortzen dute Haurren Eskubideen Konbentzioaren 12. artikulua eta, nazio mailan, Adingabearen Babes Juridikoaren Lege Organikoak eta HNIBBILOk berak. Prozesuak eta mekanismoak aldatzea eskatzen du horrek, alderdi guztien benetako babes judiziala errespetatuz haurrek euren iritzia eta lehentasunaz adierazteko aukera izan dezaten eta horiek behar bezala aintzatetsiak izan daitezten. Haurrei eragiten dien erabaki oro euren interes gorenean oinarritu behar da, eta horrek esan nahi du kontuan hartu behar dela euren ahotsa eta ikuspegia. Haurren testigantza da eskubide hori babesteko giltzarri den une bat, erabakigarria izan baitaiteke kasuaren ebazpenerako.

- **Aurrez eratutako frogaren praktika**

Aurrez eratutako frogaren praktikari dagokionez, kasuen %34,5ean ikusi dugu hori egiten dela; soilik kasuen %1ean, froga eskatu zen baina ez zen gauzatu. Bestalde, kasuen %63,8an ez da aipatzen epaian, hau da, ez da ageri informaziorik biktimaren testigantza aurretik grabatu izan ote denari buruz, epaiketan berriro deklaratu beharrik izan ez zezan. Datu horien arabera, aurrerapena eman da aurreko ekitaldiaren (2022-2023) aldean. Aldi horretan, izan ere, frogabidea kasuen %25ean erabili zen eta kasuen

%73an ez zen aipatu. Nolanahi ere, kontu horretan urrats gehiago eman beharra dago praktika hori finkatu dadin.

Gainera, auzitegiak testigantzen grabaketa onartzeak ez du esan nahi biktimak epailetan berriro deklaratu beharko ez duenik. Izan ere, ikusi dugu testigantza grabatu izan den kasuen %60an biktimak berriro deklaratu behar izan duela epailetan.

Eva eta Paularen historia

Evak eta Paulak 12 eta 13 urte zituzten, hurrenez hurren, Ramonengana eskolaz kanpoko klaseetara joaten zirenean. Ramon klase horiez eta bere posizioaz baliatu zen eraikineko toki baztertu batera eraman eta haiez abusatzeko. Abusuak hainbat alditan gertatu ziren, bai ikasgelako eskolaz kanpoko jardueretan, bai ikasgelatik kanpo. Jasan zituzten abusu haien ondorioz, bi neskek ondorio larriak bizi izan zituzten.

Prozesuan aurrez eraturako frogak eskatu zen, baina ez zen egin, ez zelako eskatu hasierako fasean, eta bi neskek ahozko epaian deklaratu zuten beste lekuko batzuekin batera.

Ramon espetxe-zigorrrera kondenatu zuten 13 urtetik beherako adingabeei abusu sexual iraunkorrek egiteagatik. Epaimahaiak beste zigorrak ere ezarri zizkion: biktimengana hurbiltzeko edo horiekin komunikatzeko debekua, adingabeekin monitore gisa edo kirol-jardueretan lan egiteko desgaitasuna, eta espetxealdiaren ondoren zaintzapeko askatasuna.

- **Kautelazko babes-neurriak**

Kautelazko neurriak dira epaileak biktimak auzibidea amaitu arte babesteko behin-behineko agintzen dituenak. Epaien %35ean ez badago ere neurri horiei buruzko informaziorik, ikusi dugu horien %38,5ean ez dela bakar bat ere aplikatu, eta, aplikatzen denean, behin-behineko espetxealdia dela erabiliena (kasuen %21ean), neurri bakarra edo beste neurri batzuekin batera –2021-2022 aldiko joera berresten du–, eta, ondoren, baldintzapeko askatasuna eta urruntze-agindua.

- **Ezarritako kondenak eta absoluzioak, neurriak eta zigorrak**

Kasuen %83an kondena dago, eta beraz, eutsi egiten zaio joerari, azken azterlaneko %88,3rekin alderatuta jaitsi egin den arren. Aztertutako 56 absoluzioetatik, 31 froga ezagatik izan ziren.

Ezarritako zigorre dagokionez, azpimarragarria da kasuen %56,8an zigorra 5 urte baino gehiagoko espetxealdia izan zela, aurreko aldian baino gehiago inondik inora ere, aldi horretako 5 urtetik gorako espetxe-zigorak %36,6 izan zirelako. Kasuen %30,8an, espetxe-zigorra 2 urtetik 5 urtera bitartekoa izan zen; 2 urte baino gutxiagoko espetxe-zigorren ehunekoa, berriz, %12,1 izan zen. Zigorra ezartzen zuten epaien %63an, askatasuna gabetzearen zigorrak gain, segurtasun-neurri osagarri batzuk aplikatu ziren: hurbiltzeko debekua, komunikatzeko debekua, zainpeko askatasuna, adingabeekin lan egiteko desgaikuntza bereziko zigorra eta sufragio pasiborako debekua. Zigor Kodearen 192.3 artikulua araberak HNIBBILOk aldatu egin zuen hori- adingabeekin lan egiteko desgaikuntzaren zigor gehigarria derrigorrez aplikatu beharrekoa bada ere, ikusi dugu hori ez dela aplikatzen kasu askotan.

- **Erantzukizuna aldatzen duten inguruabarrak**

Aزتتutako 70 epaitan larrigarriren bat ezartzen da, eta 83tan aringarri bat ezartzen da. Azken horietatik, erdiak baino gehiago (%50,6) bidegabeko atzerapenengatik izan ziren.⁷

7 Bidegabeko atzerapenak justifikaziorik gabeko atzerapenak dira prozesu penal batean, akusatuari zor ez zaizkionak eta kasuaren konplexutasunak justifikatzen ez dituenak, eta justifikatu gabeko atzerapenik gabeko prozesu publiko baterako eskubidea urratzen dute (Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikulua). Aringarria modu sinplean edo oso kualifikatuan aplika daiteke, gradu bat gutxiagoko zigorra ezartzea edo zigorra gradu bat edo bi gehiago murriztea ahalbidetuz.

Haurren Eskubideen Konbentzioa eta Interes Gorena aztertutako 2023-2024 aldiko epaietan

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak eta espainiar araudiak dioskute haurren edo nerabearen interes gorena aztertu behar dela horiei eragiten dieten edozein prozeduretan.⁹ Horrenbestez, biktima haur edo nerabe bat den kasuetako epaiek barne hartu behar lukete interes gorenaren azterketa hori era banakatuan, azterketarako irizpide formal sorta bati jarraituz.

Horren ildotik, eta aurreko ekitaldietan egindako moduan, aztertutako epaietan haurren eta nerabeen interes gorenari eta horien eskubideak babesteko nazioarteko tresnei buruzko aipamenik sartzan ote den egiaztatu dugu. Bilaketa sistematikoa egin da horri buruz txosten honetan, aurrekoetan ez bezala, eta lagin osoaren gainean.

Halatan, ikusi dugu **aztertutako 348 epaietatik 4tan bakarrik aipatzen dela Haurren Eskubideen Konbentzioa**. Hau da, %0,012an. Bestetik, **aztertutako epaietako bakar batean ere ez da ageri haurren interes gorenarekiko aipamenik epaileen aldetik**.

Omisio horiek, praktikan, hau esan nahi dezakete: hartutako erabakiek ez dituztela behar bezala kontuan hartu haurren babeserako beharrak, beren gainerako eskubideen pare. Beraz, areagotu egin dezakete haien kalteberatasun-egoera eta birbiktimizatzeko arriskua. Horrek agerian uzten du justizia haurren eskubideen arloan gehiago espezializatzeko dagoen premia, auzibideetan modu eraginkorrean txertatuz haur eta nerabeen eskubideen ikuspegia.

9 Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordea (2013). 14. Ohar Orokorra (2013), haurrak bere interes gorena funtsezko kontsiderazioa izateko duen eskubideari buruzkoa (3. artikulua, 1. paragrafoa).

3.3. Euskadin aztertutako kasuak

- **Biktimaren profila**

2019tik 2024era bitartean, adingabeei egindako sexu-abusuekin lotutako 88 epai eman ziren Euskadin, eta 108 biktimari eragin zieten. 2019an 47 epai erregistratu ziren, 47 biktimarekin; 2023an 37 epai, 57 biktimarekin; eta 2024ean 4 epai, 5 biktimarekin.

Biktimen profilak argi erakusten du neskak direla nagusi: aztertutako aldi osoan, % 92,6 neskak ziren. Adinari dagokionez, datuek erakusten dute gazteenak direla: 96 biktima 15 urtetik beherakoak ziren, 5 biktimak 15 urte zituzten eta 8 15 urtetik gorakoak ziren.

Egoera horrek agerian uzten du haurtzaroa egoera bereziki ahulean dagoela; izan ere, biktimen % 88k 15 urte baino gutxiago zituen abusuak jasatean.

- **Erasotzailearen profila**

Euskadin, 2019tik adingabeen aurkako sexu-abusuaren arloan erregistratutako epai guztietan, gizon bat zegoen akusatuta. 2019an, akusatu nagusiaren profila begirale edo hezitzailearena izan zen, 14 salaketarekin, eta, ondoren, zuzeneko familia-eremuarena, 9 salaketarekin. 4 kasutan akusatua amaren edo amonaren bikotekidea zen, biktimen bikotekideak 4 kasutan akusatuak izan ziren eta 5 kasutan bakarrik akusatua ezezaguna zen biktimarentzat. 2023an, biktimekiko loturek gertuko ingurunearen presentzia handia erakutsi zuten: 11 kasutan, amaren bikotekideak ziren; 9 kasutan, zuzeneko senideak; 8 kasutan, ezagunak; 6 kasutan, ezezagunak; 2 kasutan, biktimaren beraren bikotekideak; eta, beste kasu batean, entrenatzaile edo begirale batek. 2024ean, akusatuak gehienak ezezagunak izan ziren (3 kasu), eta kasu batean, akusatua zuzeneko senide bat zen (osaba).

Aurrekariei dagokienez, eskuragarri dagoen informazioak hau erakusten du:

- » 2019an, 6 akusatuk baino ez zituzten aurrekari penalak. Horietatik 2k izaera bereko aurrekariak zituen.
- » 2023an, 23 erasotzailek ez zuten aurrekaririk, 9k bazituzten, batek izaera bereko aurrekariak zituen eta 5etan ez dago informaziorik.
- » 2024ean, 3k ez zuten aurrekaririk, eta 1 ez dago jasota.

2019-2024 aldian, 67 akusatu daude aurrekaririk gabe, 13 aurrekariak dituztenak, 3 izaera bereko aurrekariak dituztenak eta 6 informaziorik gabekoak.

- » **Prozesuaren iraupena**

Datuak batera aztertuz gero, ikus daiteke prozeduren % 19,5 (8 kasu) bakarrik ebatzi zirela 2 urte baino gutxiagoan, eta % 61ek (25 kasu) 2 urte baino gehiago behar izan

zituztela epaia emateko. Gainerako % 19,5ean (8 kasu) ez dago iraupenari buruzko informaziorik. Datu horiek agerian uzten dute, nahiz eta azken urteetan denborak apur bat murriztu diren, prozesu gehienak oraindik 2 urtetik gora hedatzen direla.

Egoera horrek zuzeneko eragina du biktimengan. **Haur gehienek gertaerak bi urtetik gorako prozesuetan berpiztu behar izaten dituzte.** Oso frogatuta dago berriz biktimizatzeak eta haren kontakizuna errepikatzeak eragina dutela eta haren testigantza kutsa dezaketela, eta hori da, askotan, ustezko erasotzailea inkulpatzeko edo absolbitzeko froga bakarra.

Hori dela eta, **Save the Children erakundeak Barnahus eredua ezartzearen alde egin du**, Haur eta Nerabeei buruzko 02/2024 Legean jasotakoa, eta ikuspegi horrek erakutsi du prozesu judizialen iraupena murrizten dela eta biktimengan eragin psikologikoa murrizten dela.

- **Frogabideak**

Biktimaren deklarazioa elementu nagusia da aztertutako prozeduretan. 2019an, 22 kasutan egin ziren deklarazioak, baina horietako 7tan bakarrik hartu ziren kontuan proba gisa. 2023an, deklarazioa 23 prozeduratan erabili zen, 5etan ez zen kontuan hartu eta 9tan ez dago informaziorik. 2024ean, kasuen % 75ean erabili zen (4tik 3), betiere beste frogabide batzuekin batera. Zenbaketa orokorrean ikusten denez, 44 kasutan biktimaren deklarazioa erabili zen, 20tan ez zen erabili eta 10etan ez dago horri buruzko informaziorik.

Aurrezeratutako frogari dagokionez, 2019an 11 kasutan onartu zen, eta horietatik 6k kondena jaso zuten. 2023ko datuei dagokionez, froga hori 4 aldiz onartu zela erakusten dute, guztiak kondenaren emaitzarekin; aldiz, 3 kasutan atzera bota zen, eta horrek 2 kondena eta absoluzio bat ekarri zituen. 30 prozeduratan ez dago informaziorik. 2024ean, aurrez eratutako proba aztertutako 4 kasuetatik 3tan aplikatu zen.

- **Kondena**

Emaitza judizialek agerian uzten dute kondenak nagusi direla absoluzioen aldean. 2019an, 39 kondena eta 8 absoluzio izan ziren. Azken horietatik, frogarik eza nabarmentzen da, eta 2 kasutan akusatua identifikatzeko ezintasuna. 2023an, 32 kondena eman ziren 5 absoluzioren aurrean, guztiak ere frogarik ezagatik, kasu gehienetan aurrez eratutako froga ez onartzearekin lotuta. 2024ean, aztertutako epai guztiak kondenatzaileak izan ziren, eta horrek akusatuen erruduntasuna berresteko joera indartzen du.

Bi urteak kontuan hartuz gero, balantze osoa 75 kondena eta 13 absoluziokoa da, hau da, kasuen % 69,4 kondena-epai batekin amaitu ziren.

4. Justizia espezializatua, betebeharrak

4.1. Araudi aplikagarria

Nazioartean mailan araudiugaridago Estatuak justiziara jotzen duten haurren eskubideak nola babestu behar dituzten jasotzen dituzten jarraibideekin. Hasi Haurren Eskubideen Konbentzio beretik edo haren Ohar Nagusietatik, eta Istanbulko Hitzarmena,⁹ Lanzaroteko Hitzarmena,¹⁰ 2011/93 Zuzentaraua,¹¹ etab.

Ikuspegi gaurkotuago batetik, halaber, Europako Kontseilua¹² edo Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko¹³ eta Soziala bezalako nazioarteko antolakundeek ere badituzte gidalerro batzuk justiziara jotzen duten haur biktimen zein lekukoaren eskubideak babestu daitezzen. Hurrekin eta nerabeekin adeitsua izango den justizia baterako jarraibide nagusien artean, bigarren mailako biktimizazioa prebenitzera zuzendutako alderdiak daude: haurrari egindako elkarrizketa kopurua ahalik txikiena izatea, elkarrizketa horiek berariazko gaikuntza duten profesional batzuk eginak izatea, elkarrizketak grabatuak izatea frogara gisara onartuak izan daitezzen, hurrei egokitutako hizkuntza erabiltzea, beldurrik inolaz ere ez diena eragingo, biktimaren eta akusatua artean zuzeneko kontakturik ez egotea, etab.¹⁴

EBren Haurren Eskubideei buruzko Estrategiak ere hurrengana egokitutako justizia baten garrantzia azpimarratzen du bere laugarren xedean. Hurrei aitortzen die rol ezberdinak joka ditzaketela auzibideetan, biktima, lekuko, susmagarri edo akusatu gisara, eta eroso eta seguru sentitzearen garrantzia azpimarratzen du, kasu guztietan modu eraginkorrean parte hartu eta entzunak izan daitezzen. Auzibideak haurren adin eta beharretara egokitu behar dira, haien eskubide guztiak errespetatu behar dituzte eta haien interes gorena lehenetsi behar dute.

Estatu mailan, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osoki Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, bere azken xedapenetako hogeigarrenean, haur eta nerabeenganako indarkerian espezializatutako justizia bat egituratzeko betebeharrak ezartzen du, legea indarrean jartzen denetik urtebeteko epean. Betebeharrak hori Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunari buruzko urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoaren onarpenarekin gauzatu zen 2025eko urtarilean. Lege horrek

9 Emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena.

10 Haurrak sexu-esplotaziotik eta -abusutik babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena.

11 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/93/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, adingabeenganako sexu-abusuen eta -esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako borrokari buruzkoa, eta Kontseiluaren 2004/68/JAI Esparru Erabakia ordeztzen duena.

12 Europako Kontseilua (2010) Hurrei egokitutako justiziari buruzko jarraibideak.

13 Kontseilu Ekonomiko eta Soziala (2004). Delituen biktima eta lekuko izan diren haurrentzako justiziari buruzko jarraibideak.

14 Save the Children Madrilgo Abokatuen Elkargo Prestuarekin elkarlanean (2012). Haurtzaroa eta justizia: eskubideen kontu bat.

biltzen dituen xedapenen artean, instantziako epaitegi berrietan haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren sekzioak sortzea jasotzen du.

Delituaren Biktimaren Estatutuak (apirilaren 27ko 4/2015 Legea) biktima eta bereziki kalteberak diren haurrak aitortzen ditu, neurri bereziak ezarriz auzibide osoan horien babesa bermatzeko. Bere 26. artikuluan, ezartzen du haurrek eskubidea dutela beren beharretarako egokitutako neurri batzuetarako, hala nola erasotzailearekin kontaktua saihesteko, inpaktu emozionala arinduko duten egoeretan deklaratzeko eta arreta espezializatua jasotzeko. Horrez gain, Estatuak bermatu egiten die informaturik, lagundurik eta babesturik egoteko eskubidea, beren interes gorena ardatz duen ikuspegiarekin, eta bigarren mailako biktimizazioari aurrea hartuz.

4.2. Justizia espezializatua ezartzeko aurrerapenak eta erronkak

2025eko ekainaren 3an, Ministroen Kontseiluak 422/2025 Errege Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez sekzio horiek sortzen diren azkenean, HNIBBILOn eta 1/2025 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat. Hala ere, testuak hiru sekzio espezializatu besterik ez ditu aurreikusten Estatu osorako: Madrilen, Bartzelonan eta Malagan, bakoitzak plaza judizial bakarra duela, gainera.

Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriarentzako sekzioak pixkana-pixkana ezarri behar badira ere, herrialde osorako plaza bakarreko hiru sekzio oso gutxi dira haurrak eta nerabeak biktima diren mota guztietako indarkerietarako era espezializatuan artatu nahi bada. Beraz, sekzio gehiago ezarri behar dira hasiera-hasieratik. Bestalde, sekzio berrien faltak, Botere Judizialaren Lege Organikoan jasotzen diren indarkeria sexualaren kasuak ezagutzeko 422/2025 Errege Dekretuan emakumearen kontrako indarkeriarentzako sekzioen eskumenak zabaltzearekin batera, nesken kontrako indarkeria sexualarekin kasuak sekzio horien eskuetan geratzeko arriskua dago, haurrenganako indarkeriaren sekzioetan izan ordez.

Azpimarratzekoa da, halaber, berriki onartu diren tresnen artean ez dela jasotzen fiskaltza espezializatuak sortzeko aukera. Horren haritik, HNIBBILoren azken xedapenetako hogeigarrenaren 1.b) artikulua agintzen du haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako fiskaltzak sortu behar direla Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzeko lege-proiektu baten bidez.

Era berean, HNIBBILoren azken xedapenetako hogeigarrenaren 2. artikulua dio haur eta nerabeetan espezializatutako organo judizialei laguntza espezializatua eskainiko dien talde teknikoek eraketa eta funtzionamendua aratu behar dela urtebeteko epean. Hala ere, 1/2025 Lege Organikoa ez du ezer jasotzen talde horien sorrerari buruz.

4.3. *Barnahus eredua Espainian ezarri eta zabaltzea*

Barnahusa (Haurren Etxea, islandieraz) arreta integralerako eredu bat da, eta haurrenganako abusu sexualaren kasuan esku hartzen duten erakunde guztiak elkar koordinatzen dira eta sabaie berean egiten dute lan biktima den haurra laguntzeko, bigarren mailako biktimizazioa saihestuz. Baliabide horri esker, biktimaren testigantza adeitsua zaion ingurune batean grabatzen da, teknologia egokiarekin eta prestakuntza handiko profesional espezializatuen bitartez, akusatua den alderdiaren eskubide guztiak ere bermatuz. Era horretan, haurrak ez du hainbat alditan errepikatu beharrik bere testigantza, grabaketa behar den bezainbeste erreproduzitu ahal delako.

Eredu hori Espainian inplementatzearen jatorria ebidentziari eta nazioarteko zuzentarauei zor zaie. Europako Kontseiluak Barnahus etxeak erabiltzea gomendatzen du haur eta nerabeekin adeitsua izango den justizia baten aldeko bere estandarretan. Nazioarte mailan, Haurren Eskubideen Batzordeak (HEB) 2018an Espainiari egindako Azken Oharrek administrazio eta erakundearen artean koordinatzeko estatu-esparru bat ezartzea gomendatzen diote haurren eta nerabeen kontrako indarkeria egoeretan behar bezala erantzute aldera.

Espainian, Tarragonan zabaldu zen lehen *Barnahusa* 2020. urtean, proiektu-pilotu gisara. Eredu hori kataluniar lurralde osoan zabaltzen joan da ordutik, eta guztira 13 *Barnahus* unitate jarri izan dira Kataluniako barruti judizial guztien eskura, haurrenganako indarkeria sexualarekin lotutako prozedura penaletan erabiltzeko.

Beste hainbat autonomia erkidego ere, hala nola Andaluzia, Kantabria, Madrileko Erkidegoa, Valentziako Komunitatea, Nafarroako Foru Erkidegoa, Euskadi, Balear uharteak eta Asturiasko Printzerria, bide hori bera ari dira jarraitzen. Aurrerapen handiak eman izan dira Barnahus ereduan estatu eta erkidego mailan Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren arteko egitasmo bateratuari esker. Hori guztiori, Gazteria eta Haurtzaro Ministerioarekin eta Presidentetza, Justizia eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioarekin elkarlan estuan.¹⁵ Egun, II. Fasea (2024ko azaroa - 2027ko apirila) gauzatzen dago estatu mailan zabaltzen joateko eta autonomia erkidegoei esparru legal eta politikoa moldatzeko laguntza banakatua emateko helburua jorratuz.

4.4. *Barnahus eredua Katalunian ezartzeari buruzko datuak*

Kataluniako Barnahus unitateek **haurren kontrako indarkeria sexualaren 2.987** kasu artatu zituzten guztira **2024. urtean**. Gauzak gertatu zirenean biktimek zuten adinari dagokionez, urtebeteko haurretatik hasi (8 kasu) eta 17 urtekoetaraino (104 kasu) artatu ziren. Intzidentzia handieneko adin-tarteak 13tik 15era bitartekoa izan zen, 14 urtekoen 264 kasu, 13 urtekoen 243 kasu eta 15 urtekoen 255 kasu izan zirelarik. Zifra altuak gertatu ziren, halaber, 5 urtetik 8 urtera bitartekoetan, 200 kasu baino gehiago izanik adin bakoitzean.

¹⁵ Haurrei egokitutako justiziaren indartzea *Barnahus* motako zerbitzuen artean Espainiako eskualdeetan (I. eta II. faseak)] - Children's Rights

Kasuak abiarazteko bideari dagokionez, berriz, osasun sistema izan zen hautemateko kanal nagusia, 928 deribazioekin. Haurren eta Nerabeen Prebentzio eta Babeserako Zuzendaritza Nagusiak (HNPBZN) jarraitzen dio, 500 kasurekin, eta hezkuntza esparrua gero, 411 kasurekin. Honako hauengandik ere jaso izan ziren kasuak: gizarte-zerbitzu eta -erakundeak (308), segurtasun-kidegoak (249), justizia sistema (162), SIE/SIAD esku-hartze espezializatuko zerbitzuak (50), eta beste iturri batzuk (289).

4.5. Inpaktuaren ebidentziak: Tarragonako azterlan pilotuaren analisia

Azterlan honek *Barnahus* eredua aipatzen duten 15 epai bakarrik hartzen ditu kontuan. Kopuru hori kontuan hartuta eta baliabide horretan aurrez eraturako froga egin ote zen ez denez zehazten, ezin da azterketarik egin ereduak prozesu penalean izan duen inpaktuari buruz. Hala ere, badira inpaktu horri buruz ebidentziak ageri izan dituzten beste azterlan batzuk. **Evidencias del impacto: análisis del estudio piloto en Tarragona**,¹⁶ azterlanak *Barnahus* ereduak hurrenganako indarkeria sexualaren kasuen auzibideetan dituen ondorioak aztertu zituen. Tarragonako proiektu pilotua inplementatzean jasotako datuetan oinarrituz, ebidentzia batzuk eskaintzen ditu auzibideen iraupenari, frogen kalitateari, zigorra ezartzen duten epai kopuruari eta biktimen esperientziari buruz. Txostenak oinarri metodologiko bat eskaintzen du, beste lurralde batzuetan ere aplikatu ahal dena halako kasuetan sistema judizialak duen funtzionamendua aztertzeke. Hortik lortzen diren emaitza nagusiak atarikoak dira eta mugatuak, baina itxaropentsuak dira, hala ere. Jarraian azaltzen ditugu:

- » **Murritzitu egin dira Barnahusetik jorratu izan diren largespenak** (%36,4) **eredu horretatik jorratu ez direnen aldean** (%57,4).
- » **Auzi-uzte gutxiago izan da aurrez eraturako froga bat egin izan denean** (%11,6 izan dira, %76,8ren aldean).
- » **Murritzitu egin da auzibidearen iraupena**, *Barnahusen* aurretiko batez besteko 2,98 urtetik *Barnahus* osteko batez besteko 1,27 urtera igaro delarik.
- » **Zigorren tasa handiagoa da Tarragonako lurraldean** (%84,5) **Barnahus eredurik ez den lurraldeekin alderatuta** (%65,9).
- » Biktimaren esperientzia hobetu egin da, elkarriketa errepikatu gutxiagorekin eta laguntza espezializatu handiagoarekin.

16 Torres-Rosell, Núria et.al (2024). *Avaluació de l'impacte del Model Barnahus en la prevenció de la victimització secundària en infants i adolescents víctimes de violència sexual*. Resultats de l'aplicació de la metodologia a la *Barnahus* de Tarragona, Universitat Rovira i Virgili.

5. Gomendioak

Save the Childrenen urteak daramatzagu haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako justizia bat bultzatzen eta gomendatzen. Espezializazio horrek haurren eta nerabeen eskubideak erdigunean jarriko dituen arreta egoki eta eraginkorra ematea izan behar du helburu, HNIBBILOn jasotzen diren agindu eta eskubideei jarraituz.

Espezializazio hori Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunerako neurriei buruzko urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoan gauzatu da, haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako sekzioak sortuz, eta duela gutxi onartutako 422/2025 EDrekin, zeinak hiru sekzio besterik ez eratzea aurreikusten baitu, eta, ondorioz, biktima diren haur kopuru handi bati erantzuna ematea kanpoan uzten duelarik.

Estatu mailan legegintza arloan eman diren aurrerapenak aurrerapen (tartean, aipatu legea edo hori garatzen duen EDa), erronka batzuk betetzeko daude oraindik haurren mailan benetan egongo den justizia-eredu bat osorik eta eraginkortasunez ezartzeari begira. Horretarako, beharrezkoa da hau:

- 1. Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren gaineko behar beste sekzio bermatu inplementatzen direnetik.** Lurralde nazional osorako hiru sekzio bakarrik eratuz, ez da batere nahikoa haurrei eta nerabeei eragiten dieten indarkeria mota guztiei erantzun espezializatua ematen zaiela ziurtatzeko, kasu gehienak haurrari buruzko ikuspegiak ez duten instrukzio-sekzioen eskutik geratzen direlako. Sekzio horiek pixkana-pixkana joan behar badira ezartzen, HNIBBILOn ezarrita diren konpromisoak betetzeak inplementazio handina-hitsuago bat eskatzen baitu hasiera-hasieratik.
- 2. Haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatuko fiskaltzak sortu** haurra biktima den prozesu guztietan parte hartuko dutenak, adingabekoengandik bereizita (babesa eta adingabe arau-urratzaileak) edo plazen espezializazio bidez. Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren erreforma funtsezko aukera bat da haren 18.3 artikuluan jasotzen diren fiskaltza horiek sisteman sartzeko.
- 3. Eskumen edo koordinazio kontuak argitu** familiaren espezialitate zibilaren, emakumeen kontrako indarkeriaren eta adingabeen sekzioei buruz. Batik bat, neskatoen kontrako indarkeria sexualaren kasuak haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren sekzioetan eramaten direla ziurtatu behar da, emakumeenganako indarkeriaren sekzioetan eraman beharrean. Izan ere, neskek emakumezko helduengandik bereizten dituzten behar zehatz batzuk dituzte, beren adina, garapen unea, indarkeria mota edo erasotzailearekin duten harremanaren arabera. Kontrakoei, gainera, desberdintasuna ekarriko luke

praktikan nesken eta mutilenganako tratuan, indarkeria mota bereko horien kasuak sekzio ezberdinetan izapidetuko liratekeelako.

4. Haurren eta nerabeen kasuetan esku hartzen duten **maila judizial guztietara zabaldu espezializazioa**, Auzitegi Gorena, Audientzia Nazionalea, Justiziako goi-mailako epaitegiak eta Instantziako Auzitegi Zentrala barne.
5. **Haurrenganako indarkerian epaileei eta magistratuei lagunduko dieten talde teknikoak sortu**, bai haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren sekzioetan, bai beste sekzio batzuetan, haur edo nerabe bati eragiten dion kasuan eskumena horien eskuetan jartzen denean. Talde horiek funtsezkoak dira beren diziplina anitzeko izaeragatik eta gerta daitezkeen joera kognitibo batzuk aurreikusten eta epaileenak berez ez diren kontuetan laguntzen dutelako.
6. Epaila eta magistratuek haragoko **operadore juridiko guztien prestakuntza hasieratiko nola jarraitua ziurtatu**. Fase horretan bereziki garrantzitsua da oinarritzko prestakuntza komun bat kontuan izatea, baita gremio profesionalaren arabera prestakuntzaren berezitasunak ere.
7. **Prestakuntzek espezializazio horri fokua eta mamia emango dioten funtsezko edukiak jasotzen dituztela bermatu**, honako gai hauek jorratuz: HEBn eta HNIBBILON haurrei eta nerabeei buruz jasotzen diren funtsezko eskubideak; interes gorenaren zehaztapena; entzuna izateko eskubidea eta auzibidean giltzarri diren erabakietan hori aplikatzea; HNIBBILOk jasotzen dituen indarkeria motak; tratua eta ingurune seguruak sortzea; indarkeriak haurrengan duen inpaktua eta birbiktimizazioarekin lotutako kontuak; genero ikuspegia; eta, justizia moldagarri eta erabilerraz baterako funtsezko elementuak.
8. **Barnahus ereduaren haurtzaroaren justizia espezializatuan sartu**, diziplina anitzeko eta erakunde arteko jardura-protokoloak ezarriz, era horretan profesionalen arteko koordinazioa hobetzen dela eta haurrak miaketetan babesturik direla ziurtatuz, aurrez eraturiko froga eginez eta ahozko epaiketan deklaratu beharra saihestuz, haurrak instalazio judizialeetatik urrun direlarik.
9. **Interes Gorenaren ebaluazio formal**. Funtsezkoa da interes gorenaren ebaluazio formal, indibidualizatu eta estandarizatu bat ezartzea jardunbide judizialean, eratzen duten elementu guztiak aztertu eta kasu bakoitzean egiazki aplikatzen dela bermatuko duena. Horretarako, auzibide batean esku hartzen duten eragile guztiek prestakuntza jaso behar dute ebaluazio hori zertan datzan, horren analisirako puntu nagusiak zein diren eta nola burutu behar den jakin dezaten.

Hona hemen egiazki gauzatuko den justizia espezializatu baterako beharrezko beste elementu batzuk:

- 10. Legelari-laguntza HNIBBILOk ezarritako irizpideekin bat etorriz,** ziurtatuz bat datorrela doako asistentzia juridikoaren erregulazioarekin eta jasotzen dituen delitu motekin eta laguntza hori prozesuaren amaiera artekoa dela.
- 11. Aski diren datuak.** Oraingoz erabil daitezkeen datu-base ofizialak oso urrun dauden errealitatearen adierazpen zehatza izatetik, nahiz eta hurbilpen bat eskaintzen duten. Hori dela eta, garrantzi handia du datu-baseak eta ebaluazio-txostenak bultzatzea sistemak biktimei nola erantzuten diotenaren gainean. Horrek guztiorrek, orobat, dokumentu judizialetan ahalik informazio gehien jasotzea eskatzen du. Haurren Indarkeriaren kontrako Erregistro Bateria sortzea aukera ona litzateke gai horiei buruzko datu-base bat elikatzeko.
- 12. Zaintza-politiken inplementazioa.** Azterlan honetan egiaztatu dugunez, haurren erasotzaileak jende ezaguna dira askotan, neurri handiagoan edo txikiagoan, horiekin lan egiten duten profesionalak ere barne direla. Horregatik, haurtzaroa eta nerabezaroa garatzen den esparru guztietan indarkeria prebenitzeko eta horren kontra egiteko zaintza-politika batzuk ezartzea agintzen du HNIBBILOk, eskola, aisialdi eta kirol esparruetan barne.
- 13. Heziketa afektibo-sexuala.** Prebentzioa da indarkeriaren kontrako tresnarik ahaltsuena, eta baita heziketa ere horrekin batera, eskolan zein familian. Horrenbestez, baliabideak zuzendu behar dira haur eta nerabeei irakasteko zer den atxikimendu segurua, helduen eta beren parekoen aldetiko zer jokabide diren egokiak eta zein diren arrisku edota indarkeriazkoak. Beren gorputz-autonomiari eta euren eta gainerakoen gorputza errespetatzeari buruz ez badiugu irakasten, edozein motako indarkeriaren aurrean babes-ezkutu bat izateko aukera ukatzen ari gatzaizkie, indarkeria sexualaren aurka barne.

Zer aldatuko litzateke?



1

Deklarazioa hartzea eta balorazioa

Errealitatean: testigantza grabaketa oraindik finkatu gabe dagoen praktika bat da; ikusi dugu aztertutako kasuen heren batean baino gehixeagoan grabatu izan zela frogatzea eta kasu horien erdietan baino gehiagotan ez zela saihestu haurrak berriro auzian deklaratu behar izatea.

Justizia espezializatuarekin: ahalik lasterren, *Barnahus* espazio batean, epaitegietatik eta komisaldegietatik urrun, ereduaren kalitate-estandarrak betez.

2

Profesionalen prestakuntza

Errealitatean: asko aurreratu izan dugu prestakuntza, baina sektore judizialeko profesionalak prestatzeko daude oraindik, interes gorena izanik prestakuntza horren ardatza. Haurren eskubideak ez daude bermatuta prozesu judizial bati aurre egin behar diotenean, eta epaiek ez dute aipamenik egiten eskubideen tresnei eta interes gorenari buruz.

Justizia espezializatuarekin: kasu bat hautematen denetik epaia ematen den arte esku hartzen duten profesional guztiak espezializatuta daude haurren eskubideen eta generoan oinarritutako indarkeriaren gainean. Horrez gain, esparru profesional bakoitzak bere rolaren arabera prestakuntza berezia du: elkarriketa forentsea, biktimganako akonpainamendua, frogaren balorazioa, interes gorenaren ebaluazioa, laguntza juridikoa, etab. Haurretan espezializatutako diziplina anitzeko taldeak daude auzibideetan laguntzen.

3

Koordinazioa eta diziplina-aniztasuna

Errealitatean: baliabide gabeziak eta horien arteko funtzionamenduan sortzen diren diferentziek koordinazio falta bat dakarte, haurren eta nerabeen ongizatean eta babesean eragiten duelarik, eta ez da berdintasunik baliabide espezializatuarentzako aukeran.

Justizia espezializatuarekin: *Barnahus* ereduaren ezarpena zabaldurik dago Espainian, haurtzaroan espezializatutako justizia-ereduan txertatuta dago, eta justizia horren sekzio guztiak lurralde osoan ezarrita daude. Halatan, haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren kasu batean lan egiten duten baliabide eta organo guztiek argi dituzte jarraitu beharreko urratsak, beren jarduerak diziplina anitzetatik osatuz.

4

Prozesuaren iraupena

Errealitatean: prozesuen heren bat baino gehiagok 3 urte baino gehiago irauten du oraindik, eta badira 5 urte baino gehiago irauten dutenak ere.

Justizia espezializatuarekin: legeko prozesua ez da denboran luzatzen eta biktima diren haurren eta nerabeen osatzea errazten du.

Felixen historia

Felix amarekin bizi zen baina denbora asko igarotzen zuen amaren aldetiko aitona-amonen etxean, zeintzuekin izeko eta horren bikotekidea, Gustavo, ere bizi baitziren. 10 urtetik aurrera, izekoren bikotekidearekin aitona-amonen etxean izandako bizikidetzak harreman hurbila sortu zuen bien artean. Gustavok Felixen bizitzako eguneroko kontuetan hartzen zuen parte: jolasetan, ikasketetan hala nola beste jarduera batzuetan. Abusu sexualak 11 urte zituenean hasi ziren, eta hiru urtez luzatu ziren, lehenik asteburuetan eta gero ia egunero.

Aldi horretan, Gustavok kamera ezkutu bat jarri zuen Felixen logelan, eta grabatu egiten zuen azken horren baimenik gabe. Kamera horrek jasotako izaera sexualeko irudiak aurkitu ziren Gustavoren ordenagailuan, egindako abusuenak barne.

Amak salaketa jarri zuenetik auzibidea amaitu arte sei urte igaro ziren. Felixek 19 urte zituen epaia eman zenean.

6. Konklusioa

Tamalez, haurrenganako indarkeria oso zabaldurik dagoen errealitatea da oraindik. Ezagutzen ditugun datu ofizialak larriak dira, eta izozmendiaren punta besterik ez dira. Haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko jarduketa guztiek huts egin dutenean, sistema judizialak erantzun integral eta espezializatu bat ematen duela ziurtatu behar dugu.

Azken urteotan urrats garrantzitsuak eman dira: haurrak babesteko lege aitzindari bat dugu, HNIBBILO, eta esperientzia arrakastatsuak ditugu baliabide espezializatuen ezarpenean, Barnahus eredu esaterako, ebidentzia sendoak daudelako horren eraginkortasunari buruz, auzibide penalen hobekuntza barne.

Hala ere, oraindik asko geratzen da egiteko justizia benetan haurren mailan egongo dela ziurtatzeko. 1/2025 Lege Organikoak eta 422/2025 Errege Dekretuak auzibideak haurren eta nerabeen beharretara egokituta egoteko espezializazioarako ezartzen duten betebeharra lehen urrats bat da, baina ez da nahikoa: onarturik den ereduari, Espainian biktima diren haur eta nerabe gehienek ez lukete erantzun judizial espezializatu baterako aukerarik. Ezinbestekoa da, beraz, eredu indartzea eta haurren eta nerabeen kontrako sekzio gehiago ezartzea horren inplementazioarako, justizia espezializatuaren promesa errealitatea izan dadin guztiontzat, edozein dela ere bizi gareneko lurraldea. Eta lehenbailehen egin behar dugu: hurrek eta nerabeek ezin dute gehiago itxaron beren eskubide guztiak behar bezala betetzen direla ikusteko.

